

ASTIGARRAGAN

SAGARDOARI

BURUZKO

IHARDUNALDIAK

OTSAILAREN 27tik
84 eko MARTXOAREN 4 era


Mikel Arozamena berisolarriak

Astigarraga herriari

Astigarraga'k pama izan du
sagardo onak izaten,
mutli koskorra nitzan ni baña
goguan nola daukaten;
aste santuan elizkizunak,
gero sagardo edaten,
esan nai nuke ezta kitenak
orain jakindu dezaten.

Euskaldunentzat ederrrik bada
au da sagardotegiya,
Astigarraga'n ugari bada
naiz izan erri txikiya;
bide bakar bat auxe degu-ta
antxiñakuak utziya,
Euskalerriko eraria da
sagardo maitagarriya.

ASTIGARRAGAKO SAGARDOTEGI Kokaera



EGITARAUA

27 Astelehenez: Herriko eskoletan, poesia eta bertso idaz Lan buruketa, sagardoaz.

28 Asteartez : Sagardoaren historia, egoera, sagardogintza, Landaketa eta HERRIKOMUSEOAZ mahai ingurua
* Hizlariak: JOSE URIA eta A. SEGUROLA.

1 Ostegunez : Hitzaldia: Sagardoa sukaldaritzan
* Hizlaria: J. M. BUSCA ISUSI

2 Ostiralez : Diapositiba bilduma eta filma emanaldiak, sagardoaz. I. Larrañaga

3 Larunbatez : Goizean zehar ASTIGARRAGAKO Ermitan:
Sagarrondo landaketa
Gipuzkoako Foru Aldundiaren babesean

: Gaueko 8 etatik aurrera «HERRIKO FESTA SAGARDOTEGIAN» Zaldibiko trikitrixa, bertsolari... (Gartziategi sagardotegian).

4 Igandez : Egurdiko 1ean
- Txalaparta

- Sagardogile zaharrei omenaldia

- Sagardo dastaketa (KAKO sagardotegian)

- Sagardo monumentoaren aurkezpena. LERTXUNDI

- Bertsolariak, trikitrixa.....

* Emanaldi hauek ASTIGARRAGAKO Udaletxean gaueko 8etan izango dira:

ANTOLATZAILAIA: ASTIGAR Elkarte

Laguntzaileak : Astigarragako sagardogileak

ASTIGARRAGAN

SAGARDOARI

BURUZKO

IHARDUNALDIAK

OTSAILAREN 27 tik
84 eko MARTXOAREN 4 era


Mikel Arozamena bertsolariak

Astigarrağa herrlari

Astigarrağa'k pama izan du
sagardo onak izaten,
mutli koskorra nitzan ni baña
goguan nola daukaten;
aste santuan elizkizunak,
gero sagardo edaten,
esan nai nuke eztakitenak
orain jakindu dezaten.

Euskaldunentzat ederrrik bada
au da sagardotegiya,
Astigarrağa'n ugari bada
naiz izan erri txikiya;
bide bakar bat auxe degu-ta
antxiñakuak utziya,
Euskalerriko eraria da
sagardo maitagarriya.

ASTIGARRAGAKO SAGARDOTEGI Kokaera



EGITARAUA

27 Astelehenez: Herriko eskoletan, poesia eta bertso idaz Lan buruketa, sagardoaz.

28 Asteartez : Sagardoaren historia, egoera, sagardogintza, Lan-daketa eta HERRIKOMUSEOAZ mahai ingurua
 * Hizlariak: JOSE URIA eta A. SEGUROLA.

1 Ostegunez : Hitzaldia: Sagardoa sukaldaritzan
 * Hizlaria: J. M. BUSCA ISUSI

2 Ostiralez : Diapositiba bilduma eta filma emanaldiak, sagar-
 * doaz. I. Larrañaga

3 Larunbatez : Goizean zehar ASTIGARRAGAKO Ermitan:
 Sagarrondo landaketa
 Gipuzkoako Foru Aldundiaren babesean

: Gaueko 8 etatik aurrera «HERRIKO FESTA SA-
 GARDOTEGIAN» Zaldibiko trikitrixa, bertsolari...
 (Gartziategi sagardotegian).

4 Igandez : Egurdiko 1 ean
 - Txalaparta

- Sagardogile zaharrei omenaldia

- Sagardo dastaketa (KAKO sagardotegian)

- Sagardo monumentoaren aurkezpena. LERTXUNDI
 - Bertsolariak, trikitrixa.....

*Emanaldi hauek ASTIGARRAGAKO Udaletxean gaueko
 8 etan izango dira:

ANTOLATZAILA: ASTIGAR Elkarte

Laguntzaileak : Astigarragako sagardogileak



ASTIGAR ELKARTEA

Mirasol egoitza behea

ASTIGARRAGA

ASTIGARRAGAN

SAGARDOARI

BURUZKO

IHARDUNALDIAK

OTSAILAREN 27tik
84 eko MARTXOAREN 4 era



ASTIGAR ELKARTEA

Mirasol egoitza behea

ASTIGARRAGA

EGITARAUA

- 27 Astelehenez:** Herriko eskoletan, poesia eta bertso idaz Lan buruketa, sagardoaz.
- 28 Asteartez** : Sagardoaren historia, egoera, sagardogintza, Landaketa eta HERRIKOMUSEOAZ mahai ingurua
* Hizlariak: JOSE URIA eta A. SEGUROLA.
- 1 Ostegüñez** : Hitzaldia: Sagardoa sukaldaritzan
* Hizlaria: J. M. BUSCA ISUSI
- 2 Ostiralez** : Diapositiba bilduma eta filma emanaldiak, sagardoaz. I. Larrañaga
- 3 Larunbatez** : Goizean zehar ASTIGARRAGAKO Ermitan:
Sagarrondo landaketa
Gipuzkoako Foru Aldundiaren babesean
: Gaueko 8 etatik aurrera «HERRIKO FESTA SAGARDOTEGIAN» Zaldibiko trikitrixa, bertsolari... (Gartziategi sagardotegian).
- 4 Igandez** : Eguerdiko 1ean
- Txalaparta
- Sagardogile zaharrei omenaldia
- Sagardo dastaketa (KAKO sagardotegian)
- Sagardo monumentoaren aurkezpena. LERTXUNDI
- Bertsolariak, trikitrixa.....

* Emanaldi hauek ASTIGARRAGAKO Udaletxean gaueko 8 etan izango dira:

ANTOLATZAILEA: ASTIGAR Elkarte

Laguntzaileak : Astigarragako sagardogileak

SARRERA - HELBURUAK

Astigar elkarteak, euskal kulturak dituen zereginak suspertu eta indartu nahirik honako honi ekin beharrean aurkitu da. Izan ere, sagardoaren inguruan dauden kultur gaiak oso nabariak baitira euskaldunengan, eta zer esanik ez, horrekin batera finkatzen den izaeraz.

Gure kultur ihardunaldi guztiak izaten diren bezala gaurkoarekin eta hain zuzen, sagardoari gagozkiolarik jarraipen iraunkorra zehaztu nahi dugu aste honetako ekintza eta ihardueretan. Beraz, markatu eta lortu diren helburuak honako hauexek izan dira:

1.- Haurrengandiko joera kultur gai hauek lantzeko era guztietan (olerki, bertso papera, egiteko, parte hartzea, e.a.).

2.- Sagardo eta bere inguruko jatorria; historian zehar izandako gorabeherak ezaguarazten.

3.- Sagarrondo, sagasti, gaitz eta abarrei buruzko landaketa, zainketa nahiz prestaketak. Azken hauek sagardogile eta baserritarreneko premia azaltzen.

4.- Herriko SAGARDO MUSEOA eta MONUMENTUAREN osaketaren premia (ikus barneko txostenak).

5.- Azkenik, sagardotegiko euskal giro sorrera bultzatzea herritarrengan, non bertsoaritza eskola eragile haundi bat baita. Eta ahaztu gabe euskal kultur garapena nola bere baitan dagoen hizkera, hau da, EUSKARA.

SAGARDOARI BURUZKO
HAUR BERTSO ETA POESIA IDAZLAN BURUKETA

Haurrenganako literatur zaletasuna bultzatu nahirik eta haintzat gai hau oso interesgarria izaten, zeren eta herriak finkatuta duen izaera sendotzen baita, honako hau egitea premiazkoa zaigu.

Partaideak, 5-12 urte bitartekoak izan dira, eta parte hartze hau, alegia, 80 batekoa aberatsa izanik. Azken hau zela eta, partaide bakoitzari Sagardo Asteari buruzko oroigarri eman zaiola.

Hala bada eta froga ahal izateko, hor dugu zenbait idazlan eta bertso.

EUSKADIN SAGARDOA

Euskadin sagardoa, gozo gozoa.

Gauaz eta egumez sagardoa.


Nik Euskadi maitatzen dut,
eta sagardoa ere bai.

Gaur edango nuke,
bihar ere bai.


Barenitarnek eta gizonak,
guretzat egingo dute.

Bai sagardoa bai.

Esterrak azko denak,
sagardoa egiteagatik.




Sagardoa Astigarragan
 Astigarragan sagardo asto edaten da
 sagardoa ren uribudua delako
 henen sagardotegi asto eaus
 eta sagardoa baserri astiotan egiten da
 jai eguretan sagardotegien jende asto egiten da
 eta sagardoa sagar baturukim egiten da




POESIA

¿Para que sirve la manzana?
 Todo el mundo desconoce
 con ella dicen que sidra se
 y es una bebida sana.



La manzana llega a su fin
 y se convierte en líquido
 más tarde se embotella al fin!
 Por eso te recomiendo toma sidra
 pues proviene de la manzana
 y la manzana es cosa sana.

La sidra de Astigarraga
 es muy buena sana
 pruevala pruevala
 y te convencerás.



En Astigarraga hay sidrerías
 me lo dijo ayer mi tía
 pues mi tía come manzanas
 porque dice que son muy sanas.

SAGARDOAREN HISTORIA, EGOERA, SAGARDOGINTZA

LANDAKETA ETA HERRIKO MUSEOAZ

MAHAI INGURUA

Partaideak: JOSE URIA eta ANGEL SEGUROLA

Entzulegoa: 50 pertsona

Aipatutakoak

- 1) Jose Uriak, hasera batetik sagardoaren historiaz oinarritu zuen bere hitz emanaldia, eta gehienbat orain arte prozesu historiko honetan izandako gorabeherak lantzen, hitz batez, hiru zatietakoa: Hasera - Erdi-aro - eta Gaurko izaeraz. Bertan, jatorria, baserri egoera, ahozko literaturaren zer egina, sagar garrantzia eta bestelakoak aztertzen gizaldi bakoitzean.
Dena dela eta lagungarri gisa, urrengo orrialdeetan berari HABE-koek lan honetaz egindako elkarrizketa datorkizue.
- 2) Seguiolak, denon lortu nahiak, (lehenik, baserritar eta sagardogileen presentzia eza aipatuz) "sagarrondo bat" lantzeko beharrean oinarritzen direla adierazi zuen.
Zenbait konparaketa ematerakoan Ingalaterra-koak eta hemengoarekikoak bereiztu zituen, izan ere, nazio horretan sagardo edari nazionala baita. Eta hau zela eta Euskal Herrikoa zabaldu zuen, sagarrondo falta salatzen eta arrazoiak zehazten landaketa hau bultzatzeko: errentabilitatea, natura, baserria, industria, kultura, izaera e, a.
Guzti honekin sagardogintza prozesua aberasteko premia gizarzteko sektore guztietatik etorri behar dela azpimarkatuz.
- 3) Bi hizlari hauen emanaldia bukatu eta gero, elkarrizketa aberats eta luzea sortuz, non entzundakoaren arabera mota guztietako iritziak agertu baitziren. Eta honekin batera HERRIKO SAGARDO MUSEOA eta MONUMENTUARIekin genien antolatzaileok; geroxeago ikus dezakezuenetz, helburu eta pausoak markatzen. Zeinekin bertan ziren Diputazio eta Donostia Udaleko korporatiboek adostasuna azaldu baitzituzten.

"LEHENENGO LANA EUSKAL
HERRIAN BERTAKO SAGAR
KLASEAK JARTZEA DA"

Jose Uria eta sagardoaren sekretuak



J. UURTE

3 Txikitatik ikusi du sagardoak nola egiten den. Betiko moduan egiten. Hemezortzi urte pasa ondoren tradizioaren zenean gauza trakets asko egiten zela konturatu zen. Baseritarrek, sagar klaseei buruz kontrako iritzia zituzten beren artean. Horregatik aurrean elkarrekin osatu zuten beste sagardoazale batzuekin eta gero paper zaharrak maritzen hasi ziren. Arbasoen zite-

rean errezeta zaharrak aurkitu nahiz zituzten.

Bilaketan horretako fitxa eta datuekin, orain delatzen baita urte dibunua idatzi zuten: "Sagardoa". Eta sagar ondek herriko Euskal Herriko zelaietara bizuli behar dutela konbentzitu zuten.

Jose Uria irastorza da. Bere lekian egin dugu elkarriketa hau.

TRAKETS.- Aldrebesa.

MIATU.- Arakatu, aztertu.

ARBASOAK.- Asaba zaharrak, gure aurrekoak.

SAGARRONDO.- Sagar arbola. Era berean: intxaurrondo, gerizondo...

TXIKITATIK.- Txikitandik.

1 GALDERA.- Sagardoa nola egiten den eta Euskal Herriko sagar klase guztiak azaltzen dituzu libururik horretan. Zergatik egin zenuen lan zabal hori?

ERANTZUNA.- Nik txikitatik ikusi dut sagardoa gure etxean. Betidanik izan dugu kupela edukitzeko ohitura. Neuk egiten nuen etxeko sagardoa. Hemezortzi urtetan zehar sagardoa egin ondoren, gauzak trakets egiten zirela eta lan horretan kontraesan asko zegoela konturatu nintzen. Horregatik hasi nintzen liburua egiten.

G.- Sagardoa egiteko era zuzendu nahi al zenuen?

E.- Zuzendu nahia baino gehiago jakinmina izan zela uste dut. Nik pentsatzen nuen tajuzko errezeta bat egongo zela eta hasi nintzen mugitzen. Galdezka hasi nintzen sagardogileen artean; zernolako kantitateak eta zer sagar klase erabiltzen zituzten galdetzen nien eta guztiz kontrako datuak ematen zizkidaten.

"Jateko gutxi zegoen garaian edan ere gutxi egiten zen".

G.- Errezeta bat baino gehiago eman zituzten...

E.- Errezeta asko eta elkarren aurka-koak. Batzuk txori-sagarra zela onena esaten zidaten, beste batzuk errezilla. Eta hori entzun ondoren, hiru-garren sagardogile batek errezilla ez zuela ikusi nahi, txarra zela esaten zidan.

G.- Beraz, ahozko tradizioak ez zizun balio.

E.- Ez ahozkoak eta ez idatziak. Paperen artean ez dut errezeta zehatzik aurkitu. Paperetan ez da azaltzen zenbat sagar gazi eta zenbat sagar geza nahastu behar den sagardoa ateratzeko. Inor ez zen horretaz arduratzen, nire ustez; bestela artxi-boetan aurkituko nuen zerbait.

KONTRAESAN.- Kontradioa.

JAKINMIN.- Jakiteko gogo, curiositatea.

TAJUZO.- Ganorazkoa, pulamentuzkoa, prepeziozkoa.

TXORI-SAGARRA.- Sagar mota bat.

ERREZILA.- Reineta.

ZEHATZ.- Justua, garbia.

ARDURATU.- Kerkatu.

SAGARRAREN ETA ARTOAREN ARTEKO GERRA

G.- Hori al da aipatzen zenuen ohitura traketsa?

E.- Askoz traketsago iruditzen zitzaidan sagar ustelekin egiten zena. Nik beti izan dut sagar ustelak apartatzeko ohitura, baina beste sagardogile batzuk ziotenez, horien zukua ere ona da. Nik badaezpada ere ez nituen sartzen makinan, baina gero enteratu naiz proportzioari begiratu behar zaiola. Banaka batzu txarrak badira ere, horrek ez dio axolarik, ez zaio sagardoari ezer gertatzen.

G.- Noiz arte izan zen sagardoa hemengo edari nagusia?

E.- 1550. urtera arte. Gero sagastietan arto-sailak jarri ziren eta ordutik produkzioa oso urria izan da. Gauza jakina da ordurarte euskaldunen postre bakarra sagarra zela. Gordinik nahiz erreta jaten zen.

G.- Harrera ona izan al zuen artoak?

E.- Oso ona, gauza askotarako balio bait zuen. Gainera, euskaldunek ekarri zuten Ameriketatik.

G.- Ordurarte sagardo asko edaten al zen?

E.- Goseteetan ez. Jateko gutxi zegoen garaian edan ere apenas egiten zen. Larramendik zera komentatzen du izkribu batean, XVII mendeko beherakada ikustean: "jakia ez badago, sagardoa edateko amorrua ez da izaten". Eta hauxe bera gertatu zen gerra ondoren; janari bizigarririk gabe, bakailo edo antzekorik gabe, ez da sagardorik edaten.

ZIGORRA URA NAHASTEN ZIOTENEI

G.- Eta ardoak ere kompetentzia egin dio, ezta?

E.- Ardoa mende honetan sartu zaigu, Nafarroa eta Araba aldetik. Hara lanera zetozenek kontrabandoan ekartzen zuten. Erraz sartu zen, batez ere gizonezkoen artean. Jendeak lanerako indarra ematen zuela uste



J. URIARTE

Jose Uria Mutiloko bere baserrian.

"Ardoa mende honetan sartu zaigu, Nafarroa eta Araba aldetik"

zuen eta horregatik joaten ziren lanera beren zahatcarekin. Sagardoa etxean edukitzeko eta emakumeentzako gauza bezala gelditu zen.

G.- Ardoaren antzera, sagardoa ere "bataiatzen" al zen?

E.- Horri buruz asko hitz egiten da

Foruetan; produkzioarekin gorabehera haundiak zeuden nonbait.

Urte batean sagar gutxi bazegoen, orduan onartzen zen ura nahastea. Baina urtea normala bazen, debekatua zegoen eta gogor zigortua.

Nonbaiten irakurria dut, bat behintzat hil zutela sagardoa bataiatzeagatik. Eta Gipuzkoa aldean epe baterako sagardoa egiteko baimenik gabe utzi zituzten batzutan.

G.- Orain nahasten al zaio?

E.- Bai, askok ur pixka batekin nahiago dute sagardoa. Argiagoa eta garbiagoa gelditzen omen da. Hori norberaren gustuaren arabera egiten da.

ZIOTENEZ.- Esaien zutenez.

ZUKU.- Zumoa.

BADAEZPADA ERE.- Por si acaso.

TXARRAK BADIRA ERE.- Nahiz eta txarrak izan.

URRIA.- Eskasa, pobrea.

GOSETE.- Gose garaia. Atzizki berarekin: gerrate, lehorte, elurte...

IZKRIBU.- Idatzitako zernahi gauza.

BEHERAKADA.- Descenso, bajón.

ZAHATO.- Bota de vino.

EPE.- Plazo.

G.- Zure liburuan zehatz-mehatz aipatzen dituzu sagarraren propietate onak. Esaten duzu, baita ere, sagar klase ugari egon dela eta orain berreskuratu beharrean gaudela. Nola egingo da hau?

E.- Gu orain dela urte batzu hasi ginen lan horretan eta orain ari gara fruituak jasotzen. Kontutan hartu behar da Euskal Herria oso leku aproposa dela sagarrarentzako. Aurrena egin behar dena sagastietan Euskal Herri bertako sagar klaseak jartzea da; eta gero sagar horiek analizatu. Horrela klase bakoitzak zer duen eta zertarako balio duen hobeki jakingo dugu.

ARBOLA AMERIKARRAK TXARRAK DIRA

G.- Zergatik ez dute balio kanpoko klaseek?

E.- Orain arte, European landatu diren kanpoko arbolak amerikarrak izan dira. Eta horiek uste baino txarragoak dira. Aurreneko bost urteetan poliki ematen dute, baina gero gaitzak harrrapatu eta buruhauste franko ematen dute.

*“Hemen ‘calvados’
antzeko pattarra
egiteko modua
badago”.*

Horregatik Normandian eta beste zenbat aldetan, arbola amerikarra jarrri ondoren, orain kentzen hasi dira eta berriro bertako klaseak landatzen.

G.- Badirudi Euskal Herrian sagarraren eta sagardoaren tradizioa erreku-peratzeko dagoela...

E.- Mundu guztian sagar eskasia dago eta gure klimatologia oso egokia da; beraz, alde horretatik ez dago eragozpenik.

Gauza asko dago egiteko: lehenengo, sagasti zaharrak bota edo txertatu. Instituzioak ere hasi dira kezkatzen. Orain dela gutxi mintegi bat



J. UBIARTE

“Arbola amerikarrak uste baino txarragoak dira”

ireki da eta bertan gure espezie batzu biltzen hasi dira. Laborategi bat ere ireki da eta pixka bat saiaturaz gero, sagarrarekin zenbat gauza egin daitekeen jakingo dugu.

Hemen, beharbada, “Calvados” antzeko pattarra egiteko modua ere badago. Normandian egiten bada, zergatik ez hemen?

G.- Eta sagardoa egiteko modua finkatuta al dago?

E.- Errezeta hau aski onartua da: hiru zatitik bi sagar gazi-garratza izango da eta bestea geza. Irakiten dagoen bitartean, temperaturak 5 edo 12 gradu artekoa izan behar du.

Orain Euskal Herrian izan diren sagar klase guztiak bildu nahian gabilta,

onenak eta egokienak zein diren jakiteko.

G.- Sagardoaren kontsumoa goraka al doa?

E.- Azken urte hauetan doblatu egin da. Sagardotegietara gero eta jende gehiago doa. Hau sagardoaren etorkizunerako ona da. Guk orain dela urte batzu taldea osatu genuen eta sagarraren alde mugitzen ari gara. Erakusketak, hitzaldiak eta abar egiten ditugu. Azkenean, herriz herri ez ibiltzeko; pelikula egin genuen eta nahi duenak horren bidez ikasiko du guk jasotako material guztia. Ea denok ohartzen garen Euskal Herria sagar-lurra dela.

MAITE GONZALEZ ESNAI

ZEHATZ-MEHATZ.- Ipi-apa guztiekin, xehekiro.

BERRESKURATU.- Errekuperatu.

LANDATU.- Plantar.

ERAGOZPEN.- Zailtasuna, arazoa.

TXERTATU.- Txertoak jarri. Injertar.

MINTEGI.- Semillero.

GORAKA.- Gorantz.

SAGARDOA SUKALDARITZAN

José M^a Busca Isusi-k - sukaldaritza mailan hain ezaguna dena - bere hitzaldi mamitsuari hasera eman zion, hitzaldi hau ematera sagardoaren "VATICANOra", hau da, Astigarragara pozik etorri zela aipatuaz.

Sagardoaren errezeta zaharrak aipatuaz jarraitu zuen, sagardo-ozpina eta sagardo-pattarra lortzeko erari aipamen berezia eginaz. Baita ere aipatu zuen, zer garrantzia zuen sagardoak euskal sukaldaritzan. Bukatzeko, berak sagardoarekin prestatzen dituen janariak aipatu zituen.

Partaidea: I. LARRANAGA (Diputazio-koa)

Entzulegoa: 25 pertsona

Landutako gaiak

Entzun-ikus emanaldi aberats eta zabal honetara etorritako jende mota ez zen gai honetaz saiatzen dena, izan ere, baserritar eta sagardogile presentzia eskasa baitzen. Eta honen kariatz, ekitaldi hau bukatzean, guk ihardunaldi hau ekin finkatutako helburuak bete daitezzen, batzar berezi bat sektore hau sentsibilizatzeko, antolatuko dugula zehaztu genuen.

Hala ere eta txosten hau kalera bezain laster egitekotan izango gara.




Sarrera

Gure probintziako mindegizale eta baserritarrek sagarrondoak ugaltzeko orainarte gehien bat erabili ohi izan duten era ebakune edo menduarena izan da. Fruitu mintegietan aspaldidanik erabiltzen da begia lotan daukan empeltu edo eskudetearen txertaketa. «Begia lotan daukana» deritza, txertaketa egiten den unetik (Irailetik) Udaberria arte begia atsedenaldira egongo delako, hau da, ez da ernetzen lotan dago eta.

Liburuska honen bidez, txertaketa modu hau egiteko erabili ohi den teknikaren berri eman nahi dugu.

Egiteko garaia

Gure probintzian begiz txertatzeko garairik egokiena Abuztuaren bukaera edo Irailaren hasera da, garai honetan hasten bait da izerdiaren higidura indarra galtzen eta horregatik patroien azala erraz askatzen delako.




Txertatu aurretxoan pujak bildu. Urtebeteko adartxoak bakarrik bildu behar dira, ongi zurtuak, sendoak, eta ahal bada, jadanik mutur begiaz koroiturik direnak. Pujaren oin eta bukaera rurutak kendu egin behar dira, haien begiak ez direlako erabilgarriak. (Leheni heldutasuna joan zaielako eta bigarrenak oraindik eltzeako daudelako). Pujari hostoak kendu egin behar zaizkio eta gutri gorabehera 1 zm. luzearako hostotxorten zati bat gorde, horrela bere unean begia patroian txertatzea erraztu egingo bait da.




ASTIGAR ELKARTEA

Mirasol egoitza behea
ASTIGARRAGA




Pujak bildu baino lehen berauen egoera begetatiboari kontu hartuko diogu. Honegi bi kasu bereiziko ditugu.


- a) Komeni ez diren pujak, begiak oraindik higitzen dituztelako, hau da, beren haztea ez dutelako oraindik bukatu
- b) Komeni diren pujak, begien hazketa bukatu bait dute (muturbegia ko-roitua).



Ezpala ateratzen; bere jitearengatik deritzo eskudetea.



Pujen begiak ateratzen. Ebaketaren sakontasuna begia barrutik ez galtzeko adina-koa izango da.




Begia ateratzeko argitasuna.



ASTIGAR ELKARTEA

Mirasol egoitza behea


ASTIGARRAGA



6



Begia ateratzerakoan:

- A) Ezkerreko eskuaz enpeltu edo eskudeteari heldu behar zaio hostotxor-tenetik eta zura azaletik askatu behar da.
- B) Eskuineko eskuaz geartzen den zur zatia kendu behar da, baina kontuz egin behar da begia ez dadin galdu.





8

Patroian egindako ebakian enpeltu edo eskudetea sartuko dugu. Enpeltua-
ren goikaldeko gainerako zatia moztu egiten da. T horren horizontalaren al-
turan.
Horrela txertoa prestatu da lotzeko.




7



Patroia-
ren prestaketa:

- A) Goitik beherako ebakia.
- B) Trabeseko ebakia.
- C) Bi ebaki hauek egin duten T.

- D) Labanaren espatulaz azala ken-
tzea enpeltu edo eskudetea
sartzeko.



9


Patroian jarritako enpeltuaren
argitasuna.



ASTIGAR ELKARTEA

Mirasol egoitza behea

ASTIGARRAGA



10

Txertoa lotzea:

- 1) Nola hasi.
- 2) Lehenengo bira.
- 3) Nola lotu hasera.
- 4) Begi azpikaldetik birak.
- 5) Begi goikaldetik birak.
- 6,7) Nola jarri eskuak azken bira egiteko.
- 8,9) Azken korapiloa.
- 10) Azken bira estutua.

Hogei egunetara gutxi gorabehera, lotura moztu egin behar da, txertuaren atzekaldetik patroian egindako goitik behera ebakiaren bidez.

11

Txertakeraren itsasketa:

Txertatu eta gutxira, txertua itsatsi den ala ez ikusi behar da eta ondoreng
puntu hauek kontutan hartu:

- Enpeltu edo eskudetearen hostotxortena horitzen bada eta berez erori
beste hostoen antzera, txertua itsatsi dela esan nahi du.
- Hostotxortena lehortu egin bada eta erori ez, txertua ez da itsatsi

12

Patroia soiltzea:

Patroia txertuaren gainetik inaustea da. Inausketa zeharka egiten da, begi
zein aldetan dagoen haren kontra joz.

Lan hau Abendu edo Urtarrilean egiten da, izerdia mugitzen hasi bain
lehenago.

OHAR BIBLIOGRAFIKOA: Nekazaritzako Ministeritzak zabalduko Orria
eta gai honi buruzko argitalpenak.

SAGARDO MUSEOA

ASTIGARRAGAN

Sagardoarekiko gorabehera handienak , hau da, sagarrondo, sagar, sagardogintza, sagardotegi ingurunea eta abar luze bat izaten delarik, ukaezinezkoa den SAGARDO MUSEOA osatzekotan gaude.



Jatorri nahiz zergati hauek kontutan hartuta, honako eratan ikusten dugu museoa:

- IZAERA :
1. Herriko kultur talde eta sagardogileen babesean.
 2. Donostiako Udalaren ardura (ekipamendu, mantenimendua, e.a.)

FUNTZIONAMENDUA :

1. Osaketa : - Sagardogintza tresna biltokia, monumentu, kuadro, e.a.
 - Liburuak, aldizkari, artikulo (Bibliografia)
 - Argazkiak
 - Sagardo notak landaketak e.a.
 - Botelak, neurketak.
2. Antolaketa :
 - (Bizitasuna) - Sagardogintzari buruzko informazio bulegoa.
 - Sagardogile elkartea (aretoa eta guzti)
 - Hitzaldi aretoa.
3. Irikialdiak :
 - (Ikustaldiak) - Sagardo boladan, jaietan, e.a.
 - Eskola eta Ikastoletako haurrak, beste taldeak
4. Hedapenerako oroigarriak: plakak, kuadro, platerak, argazki, posta
 - (Finantziaketa)

MUSEO KOKAERA



SAGARRONDO LANDAKETA ASTIGARRAGAKO BASELIZAN

1.984-ko martxoaren 3-an landatu ziren lehenengo 11 sagar landare herriko lurretan, hau da, Santio baselizaren aurrean, Foru Aldundiaren babesean eta gai hontan arduradun den Iñaki Larrañagaren aholkuz. Martxoaren 11-ean eman zitzaion jarraipena beste 20 sagar landare landatuz.

Lan honekin hasiera eman zaio, guk bete nahi dugun helburu bati, hau da, sagastiez betetzea hortarako gai diren lurrak.

Landatutako sagar motak hauek izandu dira:

7 ama virgiña

2 buztin

7 verde agria


2 urtebi

2 berrondo

5 maximela

6 buzelna

SAGARRONDO LANDAKETA ASTIGARRAGAKO BASELIZAN



BANAKETA

BUZTIN

VERDE
AGRIA

URTEBI

BUZTIN

VERDE
AGRIA

URTEBI

BERRONDO

MAXIMELA

MAXIMELA

MAXIMELA

AMA
VIRGIÑA

AMA
VIRGIÑA

AMA
VIRGIÑA

BERRONDO

MAXIMELA

VERDE
AGRIA

VERDE
AGRIA

AMA
VIRGIÑA

AMA
VIRGIÑA

BUZELNA

BUZELNA

MAXIMELA

VERDE
AGRIA

VERDE
AGRIA

AMA
VIRGIÑA

AMA
VIRGIÑA

BUZELNA

BUZELNA

BUZELNA

BUZELNA

VERDE
AGRIA

S A G A R D O M O N U M E N T O A

Nola-hala Astigarragako herrian sagardoaren grina edo sentimetoak iraun dezan, zer hobe monumento bat eskaintzea baino.

Hortarako, A. Lertxundi eskultorearekin jarri ginen harremanetan eta berak prestatutako aurreproiektoa herriari aurkeztu zion, hau izanik:

1º.- Lauki batean jartzeko gaia.

2º y 3º.- Monumentoak ipintzeko gaiak.

4º y 5º.- Trofeo edo garaikurretako gaiak.



Herrian jarriko den monumento hila izan ez dadin, baizik eta praktikotasun bat izan dezan herri mailan, guk Lertxundi eskultorearen proposamena onartzen dugu eta herriari proposamen hau bera eskaintzen zaio.




ASTIGARRAGAN
SAGARDOA
MAMA GOXUA


UMOREA TA
OSASUNA
BETERIK BASUA

2







4



5





Sagartotegietako giroa ez da euskalduna.— Marka haundi samarra badi-rudi ere, sagardotegietan kastellano asko aditzen da eta euskara gutxi Sagardoa txotxetik edateko garaia heltzen denean, jendeak Astigarraga aldera, bai inguruko herrietara ere, jotzen du galtzarbean txuletak, bixiguak eta... sagardoaren txinpartaz kaskezurra berotu ondoren, lehen garai batez, bertsoa franko; orain, flamenko kantari hasiko ote zaizkigu sagardo edaleak? Astigarragako Euskal Eskolak kanpaina batzu muntatu ditu, beti euskararen alde, orritxo batzu han-hemenka jarritz. Sagardotegietan eta sagargin-tzan erabiltzen diren hitzak biltzen ere saiatu dira Eskolakoak. Adibide gisa hor doaz, ondoko artikuluan, banaka batzu.

(Artxiboko argazkia)

Euskadiko edari nazionalaren atzetik... euskaraz!

Askotan esan da, Euskal Herriko edari nazionala sagardoa dela. Ez dakigu hala den ala ez. Dakiguna hauxe da, sagardoaren atzetik jende pilo dabilela, eta sagardotegietan sagardoa txotxetik edateko ohitura duen jenderik gehiena, gaztelerez mintzo dela. Hobeto esanda, sagardotegietako giroa ez da euskalduna. Astigarragan, Hernanin eta inguruko auzoetan txotxetik sagardoa edateko garaia iristen denean, halako mugimendua nabaritzen da sagardotegietan: jendea nonnahi, berebilak presaka, txuletak, bixiguak, triki-txiak, noizean behin baten bat bertsoetan eta... taldetxo bat edo beste euskaraz mintzatzen. Gehienak, gaztele-raz.

Sagardotegi gehienak baserrietan kokaturik daude. Horko jendea euskalduna da. Baina sagardotegietara jotzen duen jendearen mintzaira gaztelera dugu eta giroa, lehen esan dugun bezala, ez euskalduna. Honekin batera sagardotegietako ohiturak baztertzen eta galtzen ari dira.

Baten batek bultzatu beharko du euskara sagardotegietan. Euskal eskolek? Kultur taldeek? Hori buruz eta adibide moduan esan beharra dugu, orain dela bi urte hasita, geuk, Astigarragako Euskal Eskolakook, kanpaina batzuren bidez orritxo batzu ipini ditugula bertako sagardotegietan, sagardoaz, euskal joeraz, eta, aurren, berisolariei buruz. Guzti honekin zerikusirik duen euskal txoko baten beharrea aurkitzen gara Astigarragan.

Sagardogintzak bere hiztegi-txo berezia badu, Euskal Herriko «lan-ofizio» gehienek bezala. Hitzik erabiliak jakitea komenigarria izango delakoan gaude.

Gure proposamena norbaitek ongi ikusiko duen itzaropenaz, hemen doazkizue Astigarragako sagardotegietan jasotako hitz baizuk: sagardogileek bere eguneroko langintzan noiznahi erabiltzen dituzten hitzak dira. **Barrikote.** Bazkaria edo afaria eginez, talde batek edanez, barrika itxi bat husteari deitzen zaion eginkizuna.

Bera. Edan edo botiletan sartzeko sagardoari bere garaia etorri ez zaionean.

Etorria. Edan edo botiletan sartzeko sagardoari bere garaia etorri zaionean.

Fuertxako. Azken estualdian isurtzen den sagardoa.

Go/goja. Sagardoari edateko garaia joan zaionean.

Gorputz. Sagardoaren osgarriak bete-betean daudenean.

Granilla. Upeletik nahiz botilatutako sagardoa edalontzira ateratzerakoan zipiritinak sortuaz, zipiritin horiek sortzen dituen agerpena.

Grazia. Sagardoa edaterakoan, berak gorputz barruan sortzen duen alaitasuna.

Karga. Sagardogileen neurria. Bi neurketen izena: bata, 6

zaku sagar karga osatzen du; besteak, 250 litro sagardo karga osatzen du.

Kaxkabel. Mozkortuta gaude-nean, sagardoari ematen zaion izena.

Lano. Upeletik sagardoa edalontzira ateratzerakoan eta garbia azaltzen ez denean baizik eta iluna, sagardo ilun horri *Lanotua* dagoela esaten zaio.

Motel. Bizitasunik gabeko sagardoa.

Piur. Urez nahastuta dagoen sagardoa.

Sasoi. Sagardoaren osagarri guztiak bere une onenean daudenean.

Txingar, Txinpart. Upeletik nahiz botilatutako sagardoari, edalontzira ateratzerakoan, sortzen zaion apar eta zipiritinen agerpena.

Txotx, Xiri, Ziri. 4 edo 5 m/mko egur borobila, 10 zm. luzekoa, upela zulatzen denean dastatzeko, ixteko jartzen dena. (Gaurko egunean plastikozkoak sartzen ari dira.)

Zipotz. Barrika, bukoia eta upeletik eginik dauzkaten zuloak ixteko erabiltzen diren tresnak. Ontziak, zulo hauetatik betetzen dira sagardoaz.

Zizar. Goiz sagar, ongi heldu gabe edo gaitzarekin eroritako sagarrekin egiten den sagardoa.

ASTIGARRAGAKO EUSKAL ESKOLA

Arduraduna:
X. Garmendia

1984 otsailak 29,
asteazkena

egunon

Kharg iraniar hirian, zenbait petroliuntzi deseginik utzi zutela, esan zuen, joan den astelehenean. Irakeko armadaren bozemaleak. Iraniar soldaduen bozemaleak, berriz, informazio horrek ez duela egia itxurarik, eman du aditzera. Kharg hiriko portuan untiak petrolioz betetzen ari zirenean, beroriei eraso eta hantxe bertan apurturik geratu zirela, diote irakiarrek.


Zergatik honelako txikiak eta honelako sua petroliuntzien kontra? Bassorah, irakiar hiri ondoan iraniar abizioak horixe bera egin zuelako, zenbait petrolioi instalakuntza behin betiko birrinduz. Iraniar militarrek adierazi zuten, irakiar hirian 4.500 pertsona hilik geratu ziren bonbardaketaren ondorioz. Hortzei hortzak erakutsi nahiz, hori bera egin dute, orain, irakiarrek Kharg hiriko portuan. Iraniarrek ezetz eta ezetz esaten ari dira, petroliuntziak beren petrolioa kargatzen ari direla, betiko moduz, baizetaz. «Ez dugu gezurrik zertan esan beharrik, petrolioa arduratzen diren Mendebaldeko konpainia guztiak jakitun dira eta», esan du iraniarren bozemaleak. Dena den dela, Mendebaldean ikara sortu dute berri horiek. Baldin elkarren kontra aritu nahiz petroliuntziei erasoka hasten bazaizkie, petroliorik gabe dateke, luza gabe, Mendebaldea. Kanpo Arazoetako ministroek batera egin dute deia, Persiar Golkoko itsasurretan nabigazioari bidea zabali uzteko eskatuz. Baldin eta Golko famatu hori itxiko balitz, ondorio txarrak sekulakoak izan litezke. Mendebaldekoek ez dute inoiz ere onartuko horrelakorik, ezinbizi sortuko litzateke eta. Europako Ekonomi Elkarteko ministroek Javier Pérez de Cuéllar, ONUko idazkari nagusiarengana jo dute eta eskatu ahaleginak egin ditzala bazter horretan bakea zabal dadin. Hala ere bere horretan, kaskagorok dira irakiarrek, ez baitute amore emateko asmorik, aitzitik, iraniar portue-

tara arrimatuko diren petroliuntziei alde ez edo moldez erasotzen segituko duela adierazi dute.

1983. urteko maiatzaren 17an sinatu zen-israeldar-libandar akordioa indarrak gabe utzi nahi du Gemayel, Libanoko presidentea. Bestenaz ez baituke gobernu berria aitzatzeko posibilitaterik. Kontuan izan behar da musulmanak akordioaren kontra direla guztiz, eta, bestalde, akordioari eusten bazaio Siriaren menpean diren komunitate kristauek astobeltzarenak jasan ditzaketela. Aitzitik maronitak akordioaren arront aldekoak dira. Nola konponu honenbeste diferentzia, eritzi desberdin eta interes aldrebes? Akordioa goiti beheti gauzak lehenean izango direla ia-gauza seguroa da.

Indar multinazionalen partez ONUren txano urdinak hurbilduko ote dira Libanora. Hor ari dira bai eta ez, elkarren artean konpondu ezinez. Sovietarren eta amerikanoen artean eztabaida haundia da puntu horri buruz. Sovietarrek Libanotik urrutu ikusi nahi dituzte mendebaldeko soldaduak, halaber beraien gerrauntziak. Amerikanoek ez dute nolana amore eman nahi eta emango. Europako Ekonomi Elkarteko ki-deek, aldez, ber indarrak Libanotik erretira ditzala eskatu diote Frantziari.

Yasser Arafat eta Hussein erregea, Amman hirian biak txotxu muturka. Zisjordaniako jendea pozik omen da hizketaldi horiez. Alderantziz, palestinar talde erradikalak su bizi-tan, hau da, Georges Habachen Askatasunerako Fronte Nazionala eta Fatah-eko disidentek, traizio berria taxutzen ari zaizkiela esanez. Erregea eta Arafatek, orain zertuko duten plana, arabiar herrialde guztietan erakutsiko dute, alabaina, erradikalen ustetan, plan horrek deus gutxi lagunduko die Liban eta bestetan diren palestinar iraultzaileei.



Bi balea haundi gisa, elkarri muturka.— Atzo, Tokyo hiriko Honeda aireportuan, "Boeing 747" batek muturrez-mutur egin zuen bertan geldirik zegoen YS-11 batekin. Hondarribiko aireportuan sartzen diren txiki horien antzekoa da YS-11 hori. Inork ez zuen minik hartu, baina, beste askotan munduan gertatzen den bezalaxe, haundiak txikia zapaldu eta zanpatu zuen, zakur haundiak txakur txikiari egin zion kozk. (AP argazkia)

SAGARDOTEGI HIZTEGITXOA

... / ...

BARRIKOTE.— Bazkari edo afari bat eginez, talde batek edanez, barrika tiki bat husteari deritzen zaion eginkizuna.

BERA.— Edan edo botiletan sartzeko sagardoari bere garaia etorri ez zaionean.

ETORRIA.— Edan edo botiletan sartzeko sagardoari bere garaia etorri zaionean.

FUERTXAKO.— Azken estualdietan ixuritzen den sagardoa.

GO(GO)ARRA.— Sagardoari edateko garaia joan zaionean.

GORPUTZ.— Sagardoaren osagarriak bete-betean daudenean.

GRANILLO.— Upeletik nahiz botiletik sagardoa edalontzira ateratzerakoan zipristinak sortuaz, zipristin horiek sortzen dituen agerpena.

GRAZI.— Sagardoa ecatzerakoan, berak gorputz barruan sortzen duen alaitasuna.

KARGA.— Sagardogileen neurria. Bi neurketen izena: batak, 6 zaku sagar karga osatzen du; besteak, 250 litro sagardo karga osatzen du.

KAXKABEL.— Mozkortuta gaudenean, sagardoari ematen zaion izena.

LANO.— Upeletik sagardoa edalontzira ateratzerakoan eta garbia azaltzen ez denean baizik eta iluna, sagardo ilun horri LANOTUA dagoela esaten zaio.

MOTEL.— Bizitasunik gabeko sagardoa.

PATTAL.— Ahula, indarrik gabeko sagardoa.

PITAR.— Urez nahastuta dagoen sagardoa.

SASOI.— Sagardoaren osagarri guztiak bere une onenean daudenean.

TXINGAR, TXINPART.— Upeletik nahiz botiletik sagardoa edalontzira ateratzeaz sortzen zaion apar eta zipristinen agerpena.


TXOTX, XIRI, ZIRI.— 4 edo 5m/m-ko egur borobil bat, 10 zm. luzerokoa, upela zulatzen denean dastatzeko, ixteko jartzen dena. (Gaurko egunean plastikozkoak sartzen ari dira.)

ZIPOTZ.— Barrika, bukoi eta upelak eginak dauzkaten zuloak ixteko erabiltzen diren tresnak. Ontziak, zulo hauetatik betetzen dira sagardoaz.

ZIZAR.— Goiz sagar,ongi heldu gabe edo gaitzarekin eroritako sagarrekin egiten den sagardoa.

SAGARDOARI BURUZKO
IHARDUNALDIAK
ARGAZKITAN












ASTIGAR ELKARTEA

Mirasol egoitza behea

ASTIGARRAGA

ASTIGARRAGAKO SAGARDOTEGI Kokaera





ASTIGARRAGA ELKARTEA

Mirasol egoitza behea
ASTIGARRAGA

Mikel Arozamena bertsoariak

Astigarraga herriari

Astigarraga'k pama izan du
sagardo onak izaten,
mutil koskorra nitzan ni baña
goguan nola daukaten;
aste santuan elizkizunak,
gero sagardo edaten,
esan nai nuke eztakitenak
orain jakindu dezaten.

Euskaldunentzat ederrik bada
au da sagardotegiya,
Astigarraga'n ugari bada
naiz izan erri txikiya;
bide bakar bat auxe degu-ta
antxiñakuak utziya,
Euskalerriko eraria da
sagardo maitagarriya.